

AZALPEN-DOKUMENTUA. NEKAZARIEK KALITATE-ARAU BIDEETAN PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZAKO ESKAERA (2025EKO DEIALDIA).

TRAMITAZIO ELEKTRONIKOA: Eskabideak modu telematikoan bakarrik egin ahal izango dira esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028818> esteka horretan bete beharko duzu modu digitalean. Webgune horretan sartzean, bi modalitate ezberdinen artean aukeratu beharko duzu:

Horretarako *sinadura elektronikoa* bat izan beharko duzu. "BakQ" sistema erabiltzea gomendagarria da. BakQrekin, administrazio publikoen zerbitzuetan online kontsultatu eta izapidetu ahal izango duzu, bai eta izapide elektronikoak egin ere. Izapide erraza da, eta helbide elektronikoa bat eta telefono mugikorreko zenbaki bat baino ez dituzu behar. Aurrez aurreko izapide bat egin behar da, Euskadiko leku askotan egin daitekeena. Izenperen webgunean kontsulta daiteke informazioa (<https://www.izenpe.eus/iee/eu/bakq.shtml>).

Pertsona berak BJD/AGBrako eta ekoizpen ekologikorako

Pertsona bat BJD edo AGBko kalitate-araubide batean inskribatuta badago eta, aldi berean, ekoizpen ekologikoan erregistratuta badago, bi kontzeptuengatik laguntza eska dezake eskaera berean. Kasu horretan, bi kalitate-araubideei dagokien dokumentazioa aurkeztu beharko du. Bi eskaerak banan-banan ere egin daitezke.

Eskabidearekin zalantzarik izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke 945-019706 edo 945-019704 telefonoetan. Posta elektronikoa ere erabil dezakezu (calimentaria@euskadi.eus).

Izapidetze elektronikoan arazorik izanez gero, erabiltzaileentzako arreta-zentroarekin harremanetan jar zaitezke **945 01 68 38** telefono-zenbakira deituta.